

BEGIRADA HEZKIDETZAILEA AISIALDI PRAKTIKAN

Hezkuntza Zerbitzua
Kultura eta Hezkuntza Saila




Hezkuntza Zerbitzua
Kultura eta Hezkuntza Saila

2023ko abendua

L.G. VI 819-2023

Aurkibidea

SARRERA.....	5
JUSTIFIKAZIOA	6
ZER ESAN NAHI DUGU GENERO-IKUSPEGIAZ ARI GARENEAN?	7
ZER DA HEZKIDETZA?.....	8
POSIBLE AL DA HEZKIDETZA AISIALDIAN INTEGRATZEA?	10
BERDINTASUNEAN OINARRITZEN DEN PRAKTIKA.....	11
ZER HARTU BEHAR DA KONTUAN HEZKIDETZA-PRAKTIKA GAUZATZEN DELA BERMATZEKO?	13
KOORDINATZAILE- ETA BEGIRALE-TALDEA.....	14
KOMUNIKAZIOA.....	15
HARREMANAK.....	19
EMOZIOEN KUDEAKETA.....	23
MATERIAL DIDAKTIKOAK	24
ESPAZIOAK	26
JOLASA	28
PARTAIDETZA ETA TALDE-DINAMIKAK	29
UDALEKU HEZKIDETZAILEAK- OINARRIZKO 10 GAKO.....	31
BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK.....	32




SARRERA

Gida honetan, Udal Opor Programan hezkidetza-ikuspegia txertatzeko estrategiak eta adibideak aurkituko dituzu. Aisialdi-praktikaren diseinuan, praktika horren gauatzean eta azken ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzeko moduak proposatuko ditugu.

Helburua da aisialdi-praktikak garatzen dituzuen antolatzaile, koordinatzaile zein begiraleei estrategiak eta baliabideak erraztea generoa dela-eta sortzen diren desorekak saihesteko, eta sortzen direnei aurre egiteko.

Kontuan izan, edonola ere, aisialdian testuinguru anitzak egon daitezkeela, eta horregatik, anitzak direla hezkidetza-praktika horiek gauatzeko moduak. Gida hau opor programaren berezitasunetara egokitzen saiatu gara: programaren izaera, ezaugarriak eta umeen adina hartu ditugu kontuan.

Gainera, dokumentu honek dokumentu irekia, dinamikoa eta bizia izateko bokazioa du. Hobetzen, eguneratzen eta osatzen joan behar du; horregatik, urtez urte opor programan lan egiten duzuen begirale eta koordinatzaileen formazioak, eskarmentuak eta begiradak izugarri lagunduko du lan horretan.



JUSTIFIKAZIOA

Berdintasunezko gizartearen lortu nahi badugu, non pertsona oro libre izango den bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, funtsezkoa da hezkuntzako esparru guztietan genero-ikuspegia txertatzea. Jakina da eskola, eta baita hezkuntza ez-formala ere, identitatea garatzeko espazio garrantzitsuak direla gaur egun. Baina sarritan eredu sozial eta kultural sexistak erreproduzitzeko guneak ere badira. Gainera, *Berdintasunaren ameskeriak*¹ zaildu egiten du hezkidetzan oinarritutako praktika.

Hezkuntza ez-formalean, eta baita aisialdiari dagokion opor-programa honetan ere, haur bakoitza askatasunez hazteko gune seguruak bermatu behar ditugu, prozesu horretan ematen den genero-eraikuntza espektatiba mugatzailerik gabekoa izan dadin, eta gure gizartean onartuak eta normalizatuak dauden generoari lotutako rol eta estereotipoak saihesteko.

Horretarako, funtsezkoa da kontzeptuetatik praktikara salto egitea, eta norberaren eta besteen zaintza erdigunean jartzea.

Bestalde, hizkuntzaren eta irudien erabilerari eta datuen bilketari dagokionean, Vitoria-Gasteizko Udaleko instrukzioan (2) jasotzen diren argibideak jarraituko ditugu gida honetan.

Instrukzioak datuen bilketan eta edozein analisi egiteko orduan ikuspegi intersektionaletik garatutako genero-ikuspuntua txertatzearen garrantzia azpimarratzen du. Izan ere, bildutako informazio horrek eta haren analisiak pistak emango dizkigu praktika hezkidetzailleak garatzen ote ditugun jakiteko, haurren parte hartzea nolakoa den ikusteko, sortzen diren harremanak nolakoak diren antzemateko eta abar.

1 Berdintasunaren ameskeria: gaur egun berdintasunean bizi garen uste faltsua. Amelia Valcárcel sortu eta garatutako ideia.

ZER ESAN NAHI DUGU GENERO-IKUSPEGIAZ ARI GARENEAN?

Genero-ikuspegia ikuspegi analitiko bat da, eta genero-desberdinkeriak ikusarazten, ulertarazten eta kuestionatzen ditu (3); pertsonen baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak kontuan hartuz. Aldi berean, auzitan jartzen du ustezko neutraltasuna, egiturazko genero-oztopoak badirela ikusaraziz.

Garrantzi berezia du interseksionalitatearen proposamenak; izan ere, desberdintasun sistematikoak onartzen du desorekak edo diskriminazioak sortzeko gai diren askotariko aldagaien elkarreraginetik sortzen direla. Aldagai horiek modu berezi batean eragiten dute pertsona bakoitzarengan, eta bere aukeretan ere, hezkuntzakoetan ere bai (4).

Hortaz, kontuan hartu behar dugu generoarekin batera badirela eragiten diguten eta osatzen gaituzten beste zapalketa iturri batzuk: adina, desgaitasun-egoera, maila sozio-ekonomikoa, jatorria, etnia eta abar. Zapalketa-ardatz horiek elkarreraginean, desberdinkeriazko posizio berriak sorrarazten dituzte.


Edozein modutan, hasierako datuen kasuan, kontuan izan behar dugu opor-programetako partaideei buruz jasotzen dugun informazioa Gasteizko erroldatik datorrela, eta erroldako datuek emakume eta gizon sailkapena egiten dutela, haurren sexua, kasu honetan. Familiek jakinarazi beharko digute, hala iritziz gero, umearen sexua eta genero-identitatea bat ez datozen kasuetan.

ZER DA HEZKIDETZA?

Hezkidetza pertsona guztien garapen indibiduala sustatzen duen proposamen pedagogiko integral bat da. Genero-estereotipoak eta rolak albo batera uzten ditu, eta pertsona guztien ahalduntzea eta gaitasunen garapena sustatzen du; banaka nahiz taldean, genero-berdintasuna erdiesteko bidean aurrera egin ahal izateko.

Horretarako, hezkuntza formalean eta ez-formalean oraindik ere sumatzen diren genero-desberdintasunen espazio eta mekanismoak hautemateko bideetan sakontzen du, eta abian jartzen ditu eraldaketarako tresnak eta baliabideak (5).

Hezkidetzaren bitartez, errespetutik abiatuta eta berdintasunean hezteko asmoz, indarkeriarekiko zero tolerantzia sustatzen da, bai eta gatazkak modu baketsuan konpontzea ere; genero estereotiporik gabeko identitate eta garapen pertsonala eraiki nahi da, eta balioak, rolak, itxaropenak, interesak, espazioak eta gainerako elementuak generoaren arabera banatuta egon ez daitezen lan egiten da. Horretarako, komunitate osoaren inplikazioa bilatzen da, eta garrantzi berezia hartzen du familiaren eginkizunak (6).



Eusko Jaurlaritzako II. Hezkidetza Planak (7) hezkidetza-praktikak bermatzeko zortzi zutaberi erantzuteko ekintza sistematikoak garatzea proposatzen die ikastetxeei.

Honako hauek dira hezkidetza-praktika egiteko zortzi zutabe horiek:

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean

2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista

3. Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa

4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez

5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa

6. Ikastetxeetako espazioak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak

7. Berdintasunezko hezkuntza afektiboa eta sexuala

8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea

Zutabe horien oinarrian pertsona helduaren rola ezinbestekoa izango da; kasu honetan, begirale edo koordinatzaileona.

Esku artean daukagun gida honek zutabe edo ardatz horiek hartu ditu erreferentzia gisa hezkidetza-praktikarako proposamenak egiteko. Izan ere, garrantzitsua da hezkuntza formala eta ez-formala marko teoriko eta praktikoa berean lerrokatuta egotea, eta esparru bakoitzari dagozkien berezitasunetara egokitzea.

POSIBLE AL DA HEZKIDETZA AISIALDIAN INTEGRATZEA?

Bai, posible da, eta baita beharrezkoa ere. Horretarako, ezinbestekoa da aisialdiko jarduera osatzen duten elementu guztiak kontuan izatea: arduradunak, begiraleak, koordinatzaileak, ekintzen diseinua eta martxan jartzea, baliabideak, jardueren ebaluazioa eta abar.

Hezkidetza-praktika bermatzeko, planifikazioa funtsezkoa da; hasierako plangintza bat egon behar da. Plangintza hori gauzatzeaz arduratuko diren pertsonak ere garrantzi handikoak dira. **Begirale eta koordinatzaileok kontziente izan behar dugu umeen erreferente edo eredu** izango garela, eta beraz, ondo planifikatu eta **zaindu behar ditugula gure jokabide, komunikazio eta jarrerak**. Baita gure diskurtsoa, gatazkak konpontzeko modua, eta genero-ikuspegia barneratuta dugun modua ere. Horretarako hezkidetzari buruzko oinarrizko informazioa izatea oso garrantzitsua da (aurretik daukazuena eta hemendik aurrerakoa).

KONTUAN HARTU BEHARREKO ELEMENTUAK:

ARDURADUNAK

EKINTZEN DISEINUA ETA MARTXAN JARTZEA

HARREMANAK

BALIABIDEAK

JARDUEREN EBALUAZIOA

ETA ABAR

BERDINTASUNEAN OINARRITZEN DEN PRAKTIKA

Berdintasunean oinarritzen den praktika egiteko genero-ikuspegia prozesu osoan zehar txertatu beharra dago (diseinua, gauzatzea, jarraipena, ebaluazioa...) Badaude jarraitu beharreko gako batzuk. Hasteko, **testuinguruaren, parte-hartzaileen zein baliabideen informazioa bildu** behar da.

Parte-hartzaileei buruz jasoko dugun informazioa, erroldan jasotzen dena da; hau da, umeen sexuari (emakume / gizon) erreparatzen diona. Haurren faktore bereizgarriak ikusarazteko eta datu-ebidentzietan oinarritutako genero-analisi bat egin ahal izateko, biltzen diren datuek sexuaren arabera bereizita egon behar dute, gutxienez. Bereizketa horrez gain, gogoratu garrantzitsua izango dela informazio baliagarria eskainiko diguten bestelako aldagaiekin gurutzatzea. Informazio horrek berebiziko garrantzia izango du **testuingurura egokitutako plangintza** bat egin ahal izateko.

TESTUINGURURA EGOKITUTAKO PLANGINTZA EGITEKO:

INFORMAZIOA BILDU

DATUAK SEXUAREN ARABERA BEREIZI

BESTE ALDAGAIEKIN GURUTZATU

Informazio horren analisia egin beharko dugu estereotipatuak dauden edota berdintasuna bermatzen ez duten alderdi elementuak identifikatu, eta haiek zuzentzeko aldaketa edo egokitzapenak egiteko. Analisi horrek hurrengo programa hobetzeko oinarritzko informazioa emango digu.

Diseinuaren prozesuan **harremanak** oso kontuan hartzekoak dira. **Harreman osasuntsuak sortu, garatu eta indartu** behar dira, eta **horretarako testuinguru proposak** prestatu behar dira: talde-lana sustatzen duten dinamikak, lehiakortasuna sailhesteko jokoak... Haien bitartez generoari lotutako rol eta estereotipoak hausteko jokabideak bultzatuko ditugu.

Behin plangintza diseinatuta dagoela, eta martxan jartzen denean, haren **jarraipena egin behar da jardueraz jarduera**: sortzen diren gatazkak, saiaturako konponbide eta ondorioak, espazioak banatzeko moduak, baliabideak, oztopoak... Jarraipenean jasotzen den hori oso baliagarria izango da azkeneko ebaluazioa egin ahal izateko eta etorkizunean egiten den plangintzaren oinarri praktikoa izateko.

Amaitzeko, **azkeneko ebaluazioaz** arituko gara. Prozesuan zehar sortu diren arazo eta zailtasunen balorazioa zein balorazio orokorra egin beharko da. Hobekuntzak planteatuko dira eta hurrengo plangintza diseinatzeko gakoak eskaini. Haurren parte-hartzea aztertu behar da, generoa dela-eta desberdintasun egoerarik egon ote den identifikatzeko.




ZER HARTU BEHAR DA KONTUAN HEZKIDETZA-PRAKTIKA GAUZATZEN DELA BERMATZEKO?

Elkarren arteko **zaintza, laguntasuna eta elkartasuna** izango dira Udalekuen balio nagusiak. Haiek zeharkatuko dituzte gure jarrera eta jokabide guztiak.

Testuinguru honetan berebiziko garrantzia hartzen du **Zaintzaren Pedagogia** kontzeptuak; izan ere, zaintzetan oinarrituko ditugu hezkidetza-praktika guztiak eta praktika horiek osatzen dituzten elementu guztiak.

Hots, aisialdian eta, batez ere, opor-programan hezkidetza-praktikak gauzatzeko, ezinbestekoa da praktika hori osatzen duten elementu batzuk aztertzea. Denek ala denek izan beharko dute **zaintza erdigunean**; hala nola, baliabideek, hartzten diren erabakiek, diseinatzen diren ekintza guztiek, eta baita diseinatu gabekoek ere (denbora librean).



KOORDINATZAILE- ETA BEGIRALE-TALDEA

Koordinatzaile eta begiraleok aisialdi-praktikan berebiziko garrantzia daukagu. Haurrekin **esku-hartze zuzena daukagu eta erreferentziako pertsonak gara; haurren eredu bilakatzen gara.**

Umeei baliabideak erraztu behar dizkiegu askatasunean hazi eta norberaren identitatea genero-kargarik gabe eraikitzeko, eta beharrezkoa denean genero-rolak, balioak eta estereotipoak deseraikitzeko.

Argi izan behar dugu gure jarrera eta esku hartzeek eragin zuzena daukatela haurren sozializazio prozesuetan. Horregatik, **gure praktika zaindua** izan behar da: egiten duguna pentsatu behar dugu, hitz egiteko modu zaindua erakutsi behar dugu, lankideen arteko rolen banaketa orekatu behar dugu eta abar. Berdintasunean oinarritzen den jarrera erakutsi behar dugu; **harreman osasuntsuak sortu, garatu eta indartu** behar ditugu.

Taldean hausnartzeko gai izan behar dugu, **irizpide kritikoa** lagun, gizartean normalizatuak dauden rol eta estereotipoetatik aldendu eta zuzentzeko neurriak hartzeko.

Hausnarketa horiek bideratzeko lagungarria izan daitekeen dikotomia daukagu: **zaintza eta indarra**. Gizartean zabaldua dauden genero-rolen erreparatuta eta gizarte patriarkalaren ideiak gogora ekarrita, zaintza iruditegi feminizatuarekin lotzen dugu. Kontrakoa gertatzen da indarrarekin; kasu honetan, iruditegi maskulinoarekin lotzen dugu. Hortik abiatuta, asko izango dira genero-rol eta -estereotipoei lotutako ideiak. Haietatik urrundu, eta ohikoak ez diren erreferente anitzak eskaintzea komeni da.

Ildo beretik, aipamen berezia egin behar zaio **maskulinitate-eredu ez-hegemonikoak sustatzeari**. Begirale gizonezkook maskulinitate-eredu berrien eta erantzunkidetasunaren sustatzaile oso garrantzitsuak izan gaitzke.

HAURREKIN ESKU-HARTZE ZUZENA DAUKAGU

HAURREN ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK GARA

HAURREN EREDU GARA

ROLEN BANAKETA OREKATUA BULTZATU BEHAR DUGU

EREDU ANITZAK ESKAINI BEHAR DITUGU GURE EGUNEROKO PRAKTIKAREN BIDEZ

KOMUNIKAZIOA

→ Hizkuntza: ahozko komunikazioa eta gorputz-hizkuntza

→ Irudiak

Hezkidetzaren praktikak garatzeko, komunikazioak ere berebiziko garrantzia du. Komunikatzeko bi alderdi nagusiri erreparatuko diegu: hizkuntza eta irudiak.

Hizkuntzaren eta irudien berdintasunezko erabilera zaindu behar da begiraleen, familien eta umeen artean; halaber, zaindu beharra dago komunikazio-kanaletan, elkarrizketa formaletan zein informaletan, erreferentzia-materialetan, edukietan eta irudietan.

Oinarria **indarkeriarik gabeko hizkuntza** bermatzea izango da. **Zainketetan oinarritutako hizkuntza ere sustatu** behar dugu, **elkarren zaintza eta tratu onak** balioan jarriz, komunikazio egokiaren bitartez ere bai. **Gizarte-trebetasunak lantzearen garrantzia** azpimarratu nahiko genuke hemen, komunikazio egokirako giltzarria izan daitezkeenak: eskerrak eman, mesedez eskatu, errespetuz tratatu, errespetuz hitz egin, asertibitatea, enpatia...

Hizkuntzari buruz ari garenean, ahozko komunikazioa eta gorputz-hizkuntza hartu behar ditugu kontuan, batez ere. Hitzek pentsamendua islatzen dute, eta kultura erreproduzitzeko tresna diren heinean, sekulako eginkizuna dute pertsonen nortasun soziala eratzeko orduan **(8)**. Hortaz, hezkidetzaz ari garelarik, ezinbestekoa izango da berdintasunean oinarritzen den hizkuntzaren erabilera egitea; hots, **euskararen erabilera ez-sexista eta inklusiboa egitea**.

AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Aisialdi-praktikan erabiliko den komunikazio-hizkuntza euskara da. Euskara ez da berez "genero-hizkuntza", ez baitauka, gaztelaniak bezala, hitzak sailkatzen dituen genero gramatikalik. Hala ere, hizkuntzaren erabilerak gure pentsamendua eta errealitate soziala erreproduzitzen dituen heinean, euskararen erabilera okerrak ere diskurtso sexistak sortzen ditu, eta horrek gure gizartean sexismoa betikotzen laguntzen du.

Begiraleok hitz egiten dugunean erabiltzen ditugun **hitzei** eta haien bitartez transmititzen ditugun **mezuei** erreparatu behar diegu. Hitzak ondo aukeratu behar ditugu bazterketak saihesteko.

Hitzen aukeraketa honetan kritikoak izaten lagungarriak izan daitezkeen honako estrategia eta adibideak ditugu:

Genero-marka duten hitzetan bi generoei erreferentzia egin nahi diegunean, bi hitzak erabili behar dira.

Seme-alaba ✓
Osaba-izeba ✓
Aitona-amonak
...

Euskararen erabilera okerraren ondorioz, nahiz eta hitz horiek genero markarik ez izan, “-sa” atzikia gehitzen diogu. Ez da beharrezkoa, eta zuzena ere ez.

Bihar, Julene aktoresa etorriko da eskolan antzeztera. ✗

Bihar, Julene aktorea etorriko da eskolan antzeztera. ✓

Horiez gain, ohiko erabilera okerra da “mutilak” hitza erabiltzea talde osoari erreferentzia egin nahi diegunean, edota gaztelaniaren eraginez are zabalduago dagoen “aitak” hitzaren erabilera gurasoei buruz ari garenean; adibidez:

✗ *Aizue, mutilok! Etxera joateko ordua da; beraz, jaso ezazue atera dituzuen fitxa guztiak. (ume guztiei zuzendu nahi zaie)*

Aizue, kuadrila / umeok / taldekideok / lagunok/txikiok!! Etxera joateko ordua da; beraz, jaso ezazue atera dituzuen fitxa guztiak. (ume guztiei zuzendu nahi zaie) ✓

✗ *Lur, zure aitek zer diote honi buruz? (ez dakigunean Lurren gurasoak bi aita, bi ama, ama eta aita, ama bakarra ote den...)*

Lur, zure gurasoek zer uste dute honi buruz? (badakigu Lur gurasoekin bizi dela) ✓

Halaber, bidaltzen ditugun mezuak genero-rol eta -estereotipoak indartzen ez dituztela bermatu behar dugu. Horrek banakako zein taldeko lanketa eskatzen du. Gerta daiteke **edertasunarekin eta indarrarekin** lotutako mezuak genero zehatz bati lotuta erabiltzea, edota haurren sentimenduak ere modu desberdinduan ulertu eta kudeatzea. Gehienetan, barneratuak izaten ditugun jokabideak dira, inkontzienteki ematen diren egoerak neutroak balira bezala; horregatik, arreta berezia jarri behar dugu hemen.

Adibide hauetan, zuzentasun gramatikalari erreparatzen badiegu, zuzenak izan daitezke, baina **ikuspegi hezkidetzaille batetik ez dira egokiak:**

✗ *Aupa, Andoni!! A ze nolako zapatilak ekarri dituzun gaur!! Horrekin ziztu bizian egingo duzu korrika!*

Haur bat erori da: Aupa, gora, Mikel, ez baita ezer gertatu! ✗

✗ *Kaixo, Julene! Ze kamiseta polita ekarri duzun gaur! Dotore-dotore zaude!*

Haur bat erori da: Joane, pitxin, ondo zaude? Non hartu duzu min, lastana? ✗

GORPUTZ-HIZKUNTZA

Gorputz-hizkuntzak esaten dugunak adina balio du komunikatzeko. Begiraleok, edozein delarik ere gure sexu- edo genero-identitatea, modu ekitatiboan jokatu behar dugu ume guztiekin, horizontaltasunetik.

Modu berean, begiraleok lagundu behar dugu ume bakoitzak bere gorputza ezagutu eta errespetatu dezan. Sormena eta adierazpenerako askatasuna bultzatu ditzakegu horretarako.

Aipamen berezia behar du hemen umeen itxurari ematen diogun garrantziak eta denborak. Askotan, saiatzen gara neskek –batez ere- orrazten, arropak txukun edo “itxuroso” jartzen, eta garbi mantentzen. Estimuan eta zaintzan oinarritzen ditugu jarduerok, baina ez baditugu modu orekatuan egiten, genero-rol eta estereotipoak erreproduzitzen arituko gara.

Estimua adierazteko keinuei ere erreparatu behar diegu: musuak, besarkadak, besoetan edo altzoan hartzeak... Keinu horiek bi pertsonen arteko nahiak bultzatuta sortu behar dira beti, askatasunez eta ingurukoan edo dinamiken presiorik gabe. Helduak ez luke baldintzatu beharko umearen jokabidea zentzu honetan.

Zaintza-keinu mekanikoekin ere adi egon behar dugu: mukiak kendu, krema ematen lagundu... Laguntza eskainiko diogu behar duenari eta behar duenean, komunikazioa lagun, generoak edo sexuak baldintzatu gabe, eta bere autonomia oztopatu gabe.

Horrez gain, jakin badakigu pertsona helduak zuzentzen dien begiradaren bidez hazten direla umeak, eta hor, gehiegizko aginduek, gehiegizko konparazioek, iritziek edo keinu desegokiek min eman diezaioketela norberaren autonomia eta beharrak lortzeko nahiari (9).

Amaitzeko, begiraleok espazio fisikoan nola kokatzen garen eta nola mugitzen garen ere zaindu beharreko kontua da. Esate baterako, begirale emakumeek, genero-sozializazioaren eraginez, bigarren mailako papera har dezakete haien kide gizonen aurrean (jendaurreko azalpenetan edo jolas fisikoetan, adibidez).

IRUDIAK

Plangintzarekin lotuago, irudiak ditugu. Normalean, jardueretan erabiliko ditugun irudiak planifikazioan aukeratutakoak dira. Edozelan ere, lengoaiarekin bezala, **ezinbestekoa da genero-rol eta estereotipoak ez erreproduzitzeko kontuz ibiltzea. Genero-kargarik gabeko irudiak**

erabili behar ditugu, eta modu berean, **aniztasuna ikusarazteko eredu desberdinak eskaini.**

Normalizatuta dauden ereduak, genero-rol eta -estereotipoei lotutakoak, apurtzera jo behar dugu. Esate baterako, honako eredu hauek eskaini beharrean,

Lan-tresnekin lanean ari den mutila

Ile apaintzaile neska

honako hauek eskaini ditzakegu:

Lan-tresnekin lanean ari den neska

Ile apaintzaile mutila

Genero-adierazpenagatik emakume edo gizon kategorietan sailkatu ezin dugun pertsona, irakasle lanetan.

Gizarte heteronormatiboan “ohikoak” ez diren ereduak ematen ditugunean, erreferente anitzak izateko aukera eskainiko diegu umeei; modu libreago batean erabakiak hartzeko aukera, alegia.

NOLA JAKIN IRUDI BAT HEZKIDETZAILEA DEN?

- Genero-rol eta -estereotipoak behatuta, gizartean normalizatuak daudenak erreproduzitzen dira?
- Aniztasuna irudikatzen da?
- Berdintasunean oinarritzen diren harremanak irudikatzen dira?
- Zer rol betetzen du genero bakoitzak irudian?
- Rol horiek tradizionalki inposatu diren rolek bat datoz?
- Agertzen diren pertsona guztiak inolako hierarkiarik gabe irudikatzen dira?



HARREMANAK

→ Berdinkideen artekoak

→ Begirale / koordinatzaileenak parte-hartzaileekin

Harremanak funtsezkoak dira gizarte honetan bizi garen pertsonontzat; horregatik, zaindu behar ditugu osasuntsuak eta berdintasunezkoak izan daitezen.

Begirale eta koordinatzaileok haurren erreferentziatzko pertsonak gabela esan dugu, eta jakina da umeek imitazioaren bitartez barneratzen dituztela jarrerak. Hala, guk geuk sortzen, garatzen eta indartzen ditugun harremanak ondo zaintzea inoiz baino garrantzitsuagoa izango da; mendekotasunik eta hierarkiarik gabekoak izan daitezten.

Udalekuetan parte hartzen duten pertsona guztien arteko tratu onak sustatu behar ditugu (umeak, begiraleak, familiak...), eta ez bakarrik jarduera dinamizatuak egiten ditugun momentuetan, baizik eta interakzioa suertatzen den uneoro. Kontuan izan planifikazio gutxien izaten duten hartu-emanetan gertatu ohi direla gatazka- eta bazterketa-egoera gehienak; beraz, arreta handiz mugitu beharko dugu esparru hauetan, bereziki jantokian, komunetan eta patioan.

BERDINKIDEEN ARTEKO HARREMANAK

BEGIRALEEN ARTEKOAK

Genero-espektatibetatik urruntzeko, gizartean normalizatuak dauden jarrerak ikuspegi kritikoz behatu behar ditugu. Genero-rol eta -estereotipoak indartzen dituzten aztertu behar dugu, eta beharrezkoak diren aldaketak proposatu eta gauzatu behar ditugu jarrerok aldatzeko.

Irudikatu dezagun, adibidez, talde dinamika bat. Bi begirale: bata emakumea, eta bestea gizona. Dinamika aktibatuzko, ipuin bat kontatuko dugu. Aldi berean, gelan dauden kutxa handi batzuk gelatik atera behar ditugu. Eredu normatiboena hau litzateke: gizonak kutxak mugitzea **-indarrarekin lotzen dena-** eta emakumeak ipuina kontatzea **-zaintzarekin lotzen dena-**. Horrelako egoera edo jarrera batek genero-rol eta -estereotipoei lotutako ideia indartu egingo du. Honako hau adibide bat besterik ez da, hausnarketarako bidea zabaltzea du helburu; argi dago egoera desberdinak

suerta daitezkeela eta **egoeraren arabera moldatu beharko dugula gure egitekoa, betiere normaltzat ditugun egoera horiek aztertuz, eta aldatu behar badira, aldatuz.**

PARTE-HARTZAILEEN ARTEKOAK

Umeen harremanez ari garenean, begiraleon zereginak berebiziko garrantzia izaten jarraitzen du.

Behaketaren bitartez, **taldean gertatzen diren hartu-emanak, parte hartzeko moduak, lidergo-jarrerak, eta gatazkak modu baketsu eta parekidean konpontzen ote diren aztertuko dugu, besteak beste.**

Behaketa horrez gain, gure esku-hartzea edo interbentzioa garrantzitsua izango da beti, baina, batez ere, umeez elkar ezagutzen ez badute; opor programan kasu. Elkar ezagutzeko dinamikak proposatu ditzakegu, eta suertatu daitezkeen gatazkak bideratzeko estrategiak eta tresnak eskaini.

Interesgarria da programa beraren hasieran edota jarduera zehatz bat hasi baino lehen, arauak azaltzen ditugunean, harremanei buruzkoak ere gogoraraztea. Esate baterako:

Zer nolako harremanak onartuko diren eta zeintzuk ez.

Oso argi utzi ez dela onartuko hierarkiazko zein mendekotasunezko harremanik.

Halaber, **tratu onak sustatuko** dituen harremanak sortzea nahi badugu, indarkeriarik gabeko testuinguruak eskaini beharko ditugu. Umeak entzun eta onartuak izan daitezela bermatu behar dugu, eta haien **emozioei lekua** eman behar diegu. Jakina, gatazken aurrean ere, umeen generoak edo sexuak ezin du begiraleon tratua edo esku-hartzea baldintzatu (ezta beste edozein ezaugarri ere).

Gaitasun sozialek pisu handia hartzen dute umeen harremanetan ere, eta testuinguru honetan, ezetz esateko gaitasunari egin nahiko genioke erreferentzia. Zerbait egin nahi ez dutenean, "ezetz" esatera ausartzea sustatu behar dugu, beren beharrei eta nahiei erantzun ahal izateko, eta, aldi berean, une bakoitzean sortzen den egoera kudeatzeko.

Bestalde, berdinkideen harremanei buruz ari garenean, **ume anitzen arteko harremanez** ari gara; tartean, neska eta mutilen artekoak. **Harreman askeagoak, berdintasunezkoagoak eta arduratsuagoak** garatzeko ezinbestekoa da harremanak modu librean garatzen uztea; hots, **aniztasun**

afektibo-sexuala eta sexu- eta genero-aniztasuna nahiz gorputz-aniztasuna errespetatzea eta balioestea.

Horiek horrela, *maitasun erromantikoarekin* lotutako aipamen, adibide edo jolasak oztopoa besterik ez da izango garapen libre horretan, eta beraz, oso garrantzitsua da praktika horiek saihestu eta identifikatzen ditugunean esku-hartze egokia egitea. Esate baterako, hona hemen praktika oker tipiko baten adibidea: neska eta mutila elkarrekin jolasean ari dira, eta senar-emaztegaiak edo “nobioak” direla esaten diegu.

BEGIRALE/KOORDINATZAILE ETA UMEEN ARTEKOAK

Pertsona helduek hurrekin harremanetan jartzeko, tratatzeko eta begiratzeko ditugun formak genero-bereizketa gabekoak izan daitezen sustatu behar dugu. Adi ibili behar dugu: harremanetarako irizpidea ez dadila izan umearen generoa.

Horrez gain, begiraleok eta koordinatzaileok betetzen dugun laguntzailearen eta zaintzailearen funtzioa oso garrantzitsua da. Tratu onak sustatzeko gakoetako bat umeen erritmoak, emozioak eta beharrak errespetatzea da. Harreman afektiboak ezarriko ditugu, **segurtasuna transmitituz eta haien jarduera, denborak eta autonomia errespetatuz.**

Begirale- eta koordinatzaile-taldeak **segurtasun- eta zaintza-gunea** izan behar du umeentzat (10).

FAMILIEKIKO HARREMANA

Begiraleok opor-programako umeen familiekin edo haurren arduradunekin daukagun harremanek edo komunikazio-ekintzek ere hezkidetzailak izan behar dute. Edozein dela ere umearen arduraduna (aita, ama, amona, aitona, izeba, zaintzailea...) haiekiko tratu berdinzalea izan behar dugu, genero-rol eta -estereotipoetan erori gabe.

Horretarako, **familia-aniztasuna errespetatzea eta balioan jartzea** oso garrantzitsua da. Familiek askotariko errealitate eta egoerak bizi dituzte, baita opor-programan parte hartzen duten umeen arduradun, bizikide edota familiek ere. **Familia anitzak daude;** ezin dugu bakarrik familia eredu nuklearra (aita, ama, seme-alabak) aipatu eta kontuan hartu, ez baditugu gainerakoak kanpoan utzi nahi.

Horrez gain, erantzunkidetasuna oztopatzen dituzten jarrerak saihestuko ditugu. Aiten eta erreferente maskulinoen **maskulinitate ez-hegemoniko eredu berriak balioan jarri** behar ditugu, eta gizonen inplikazioa sustatu eta ikusarazi hezkuntza eta zaintza arduetan.

Esate baterako, askotan ez diegu informazio berbera ematen haurren bila etorri diren helduei, eta horrela erreferente femeninoei zaintzaren ardura egokitzen dien rol tradizionala erreproduzitzen jarraitzen dugu.

Adibidez:

Etxera joateko momentua heldu da eta haur bakoitzaren familiari hurrengo egunean udalekuetara ekarri behar duten materialaren berri ematen zaio:

BEGIRALEAK

Kaixo! Biharko behar dugun materialari buruzko oharra dago Ametsen motxilan. Mesedez, gogoratu biharko ekarri behar duzuela.

→ **AMA / AMONA / ERREFERENTE FEMININOA**

BEGIRALEAK

Kaixo! Amets, gogoratu motxilan biharko behar dugun materialari buruzko oharra daukazula.

→ **AITA / AITONA / ERREFERENTE MASKULINOA**

Adibide honetan argi ikusten da: erreferente heldua maskulinoa denean, umeari zuzendu zaio zuzenean, eta horrela, heldua baztertu egin du ardura horretatik. Erreferente heldua femeninoa izan den kasuan, zuzenean eskatu dio helduari eskatu beharrekoa.

Familiei buruz ari garelarik, amaitzeko, ezin uka daiteke gure umeen hezkidetzan gurasoak eta familiak ezinbesteko giltzarria direla. Identitate erreferenteak dira, eta berdintasunaren aldeko sentsibilizazio-mailak eta inplikazio aktiboak eragin zuzena daukate umeengan. Horregatik, **gure jardunean komeni da kontuan izatea hezkidetzan hezten duten familiak feministak badaudela, eta baita sentsibilizazio horretatik urrunago dauden familiak ere.**

EMOZIOEN KUDEAKETA

Garrantzi handikoa da umeen emozioei tokia ematea, eta horiek tratatzeko denbora eta jarrera irekia izatea. Aipatu bezala, **begirale eta koordinatzaileok emozio zein sentimenduak azaleratzeko “gune segurua” izan behar dugu umeentzat**. Ume guztien sentimenduak balioetsi behar ditugu, edozein delarik ere bere sexu edo generoa, edota geurea.

Izan ere, askotan, sentimenduei buruz ari garela eta konturatu gabe, modu desberdinean tratatzen ditugu neskak eta mutilak. Umeen zein begiraleon gizarteratze-prozesuak eragin zuzena dauka horretan. Horregatik, jarrera horien inguruan hausnartzeko eta, ahal den neurrian, aldatzeko gai izan behar dugu.

Halaber, Udalekuen zeharkako balioak diren **zaintzak, laguntasuna eta elkartsuna** praktikara eramatea oso balioetsua **da indarkeria prebenitzeko**. Ez gara jarduera isolatuez ari, baizik eta zeharka lantzeaz ari gara; uneoro eta edozeinekin **tratu onak** sustatzea izan behar da gure eginkizuna.

Gatazken kudeaketari dagokionez, **gatazkek saihestea** izango da gure betebeharra, eta gatazka sortzen denean, hari **modu baketsu eta bidezkoenean aurre egitea**.

Edozelan ere, haur batek beste bati eraso egiten badio adibidez, une horretan erasotuak ez du bere adiskidetasuna nahiko. “Eman musu bat eta ez zaitzete gehiago borrokatu” jarrera ez da gatazka konpontzeko modu egokia izango.

EMOZIOEN KUDEAKETAREN ANALISIA EGITEKO LAGUNGARRIAK IZAN DAITEZKEEN GALDERAK:

- Nola jokutzen dugu ume batek mina hartu edo erori egiten denean? Genero edo sexuaren arabera, desberdin jokutzen dugu?
- Jarrera berdina daukagu triste dagoen neska edo mutil batekin? Pozik edo urduri dagoen batekin?
- Nola kudeatzen ditugu gatazka baten aurrean sortutako sentimenduak? Berdin jokutzen dugu neska edo mutilekin?
- Ume batek zerbait gaizki egiten duenean, gure erantzuna berbera da neska baten eta mutil baten kasuan?





MATERIAL DIDAKTIKOAK

→ Ipuinak

→ Musika

→ Jostailuak

Arretaz aztertu behar dira material, tresna eta baliabide guztiak. Aisialdian, askotan ipuinak erabiltzen ditugu jarduerari hasiera edo aurkezpena egiteko, edota saioari jarraipena emateko. Oso garrantzitsua izango da ipuin edo istorio horiek guztiek berdintasunean oinarritutako mezuak zabaltzea oinarrian. Kontuz ibili behar dugu aukeratutako ipuinek ez dezaten lagundu genero-rol eta -estereotipoak zabaltzen. Horrez gain, garrantzitsua da **ohikoak ez diren egoerak (-ez heteronormatiboak) ipuinen bidez ere ikusaraztea.**

Modu berean, ikuspegi hezkidetzaille batetik aztertu behar ditugu **dantza eta katurako erabiltzen ditugun abestiak.** Tentu handiz aukeratu behar dira abestiak, ahalduntzaileak, berdinzaleak, feministak... izan daitezen (mezu baztertzaille eta sexistarik gabekoak)

Jostailuei dagokionez, genero-rol eta -estereotipoak sustatzetik alden du behar dugu hemen ere. Era askotariko jostailuak proposatzea komeni da; proposamenetan aniztasuna egoteak lagundu ahal digu genero-rolak eta -estereotipoak ez erreproduzitzen. Umeek modu askean erabaki dezatela zerekin jolastu, eta jostailu desberdinak eta askotarikoak probatzera bultzatu. **Erabilera-txandak errespeta** daitezen zaintzeak (denbora eta kantitatea antolatuz), esaterako, lagunduko digu erabilera-aniztasun hori bultzatzen.

Horrez gain, kontuan izan edozein objektu jostailu bihur daitekeela, adibidez, edalontzi bat, saski bat, zurezko koilarak, botilak... Horrela, errazagoa izango da genero-kargarik gabeko materiala aurkitzea, estereotipoetatik kanpo diren proposamenak eskaintzen direlako (11).

ZER GERTATZEN DA HEZKIDETZAILEAK EZ DIREN MATERIALEKIN?

Gogoeta kritikoa egin behar da erabiltzen dugun material guztiaren gainean; izan ere, material askok ez du genero ikuspegirik. Kasu horietan, merezi du dagozkion moldaketak egitea edo material berria proposatzea, materialaren genero-ikuspegi interseksionala bermatzeko.

IPUIN ETA ABESTIEN ANALISIA EGITEKO LAGUNGARRIAK IZAN DAITEZKEEN GALDERAK:

- Genero/sexu-aniztasuna agertzen da? Errealitate anitzak irudikatzen dira? (jatorria, desgaitasun-egoera, etnia, adina...)
- Zein da protagonista? Nolakoa da? Genero-rol eta -estereotipoekin bat dator?
- Zein da pertsonaia bakoitzaren rol edo zeregina?
- Berdintasunean eta tratu onean oinarritzen diren harremanak irudikatzen dira?



ESPAZIOAK

Hezkidetzaz ari garenean, baita aisialdian ere, **espazioaren antolaketak** berebiziko garrantzia dauka. Barneko zein kanpoko espazio guztiez ari gara (ikasgelak, patioak, jantokia, komunak...) eta haien kudeaketari irmoki loturik ulertu behar ditugu **denbora eta ekintza**. Planifikatu beharrekoak dira: **zer egiten den, non, zenbat denboraz eta noiz**.

Espazioak leku konplexuak dira, mezuz, konpromisoz eta elkarreraginez osatuak. Haien diseinua eta erabilera aztertuta, berrantolatu edo egokitu ditzakegu sexismoa eta beste diskriminazio-modu batzuk saihesteko eta inplizituki transmititzen diren arauak errotik ezabatzeko **(12)**.

Normalean, patioko denbora eta jantokiko orduak izaten dira gizarteratze inpaktu garrantzitsuena izaten dutenak, eta askotan gutxiesten ditugunak.

Adibiderik esanguratsuenetako bat patioaren erabilera da. Maiz, patioko espaziorik zabalena baloiarekin jolasteko erabili ohi dute hainbat umek (mutilak gehienak). Ondorioz, baloiarekin ari ez diren umeei (neskak gehienak) espaziorik txiki eta baztertuenak egokitzen zaizkie automatikoki, jolastu nahi ez dutelako eta baloiak ez jotzeko leku seguru bat bilatzen dutelako.

Egoera horiek saihesteko, ez dago formula magikorik; edozelan ere, espazioen erabilera behatu dezakegu eta erabilera horiek ahal den neurrian baldintzatzen saiatu, **erabilera bidezkoago eta inklusiboagoak sustatzeko**.

Esate baterako, patioa eremu fisiko markatuen arabera antolatu dezakegu. Adibidez: psikomotrizitatearekin lotutako gune bat, baloiarekin jolasteko beste gune bat, lasai egoteko gunea edo irakurtzeko gunea, marrazteko gunea eta dantzatzeko gunea. Ondo zaindu behar da gune horien zentralitatea eta dimentsioa (bati besteari baino garrantzi handiagorik ez emateko), eta ikasgelatik materiala ateratzea interesgarria izan daiteke jarduera horietan laguntzeko: margotzeko materiala, sokak, musika...

ESPAZIOEN ANALISIA EGITEKO LAGUNGARRIAK IZAN DAITEZKEEN GALDERAK:

- Nolakoa da espazioa?
- Zer egiteko erabiltzen da? Noiz? Zenbat denboraz?
- Generoaren araberako desberdintasuna sumatzen da erabileretan?
- Bazterketarik sumatzen al da? Ze gatazka mota sortzen da?
- Ze aukera ditugu espazio bidezkoago bat egokitzeko?
- Ze dinamika garatu ditzakegu?



PATIO HEZKIDETZAILEAK

Gasteizko hainbat ikastetxek ekimen interesgarriak hasi dituzte euren patioak hezkidetzaileagoak izan daitezen.

Helburua bizikidetza hobetzen duen patioa antolatzea da: gatazkak eta diskriminazioak saihesten dituena, naturarekiko lotura sustatzen duena eta umeei berdintasunean jolastu eta egoteko lekua emango diona.



JOLASA

Jolasa oso baliabide interesgarria da berdintasunean oinarritzen diren harremanak sortzeko. Adi ibili behar dugu jolasek ez dezaten sexismoa erreproduzitu. Horregatik, **jolas librean zein bideratutako jolasean gure esku-hartzea** oso garrantzitsua izango da zentzu horretan.

Jolas libreak ez du esan nahi umeak bakarrik aritzen utziko ditugunik, ezta gutxiago ere. Begiraleon zeregin nagusia unea prestatzea (denbora, espazioa, materialak, baldintzak...) eta jolasa estimulatzea izango da, eta behaketa aktiboaren bitartez, ezinbestekoak diren esku-hartzeak egitea.

Bideratutako jolasei dagokienean, jolas guztiek izaten dute hezkidetzarako alternatiba bat; hobe da jolasa moldatzea, hezkidetzaren kontra egitea baino. Esan gabe doa, jolasek udalekuen oinarritzko balioak sustatu behar dituztela: berdintasuna, aniztasuna, laguntasuna, zaintza, talde-lana...

JOLASEN ANALISIA EGITEKO LAGUNGARRIAK IZAN DAITEZKEEN GALDERAK:

- Zein da jolasaren helburua?
- Jolasak rol eta estereotipoak erreproduzitzen ditu?
- Neskak eta mutilak berdintasunean jolasten dira?
- Lehiakortasuna sustatzen du? Talde lana?
- Zer baliabide erabiltzen da jolasa egiteko?
- Zein espaziotan jolasten da?



PARTAIDETZA ETA TALDE-DINAMIKAK

Taldean ematen diren elkarreraginak, lidergoa nork daukan, iritzi- aniztasuna nola kudeatzen dugun, sexu/generoaren araberako desberdintasunik edo bazterketarik ageri den partaidetzan oso aintzat hartu beharreko dinamikak dira.

Horregatik, komeni da estrategia eta praktika batzuk erabiltzea taldearen dinamizazioa ere ikuspegi hezkidetzailetik garatzeko.

Esate baterako, funtsezkoa izango da ikusezinei; hots, une horretan **botere-posizio batetik aritzen ez direnei, hitza ematea** eta, modu horretan, haien ahalduntze prozesuan bidelagun izatea. Begiraleok parte hartzeko aukera edo ohitura gutxien dutenei hitza eta protagonismoa eskaini behar diegu; inoiz derrigortu gabe. Horretarako, tresna baliotsuak dira talde-dinamikak edo dinamika parte hartzaileak. Norberaren autoestimua eta autokontzeptua lantzeaz gain, talde kohesioa lantzeko tresna eraginkorrak dira. Hala, **partaidetza ekitatiboa sustatzen** saiatu behar dugu; txandean antolaketa eta errespetuaren bitartez, adibidez, eta betiere, **aukera berdintasuna eta irisgarritasuna**, helburu.

Bestalde, **harreman osasuntsuak eta parekideak** sustatzeko orduan, **lankidetzak edo dinamika kooperatiboak** bultzatzea komeni da, lehiakortasuna bezalako balioen ordez.

Enpatiak eta asertibitateak lagunduko digute zaintza eta tratu onak balioan jartzen eta praktikara eramaten. Horrez gain, esan gabe doa, **egoera edo iruzkin baztertzailerei** dagokienean, haiek **saihestea** izango dela gure eginkizuna, eta emango balira, esku hartzea. **Ezin dira; inolaz ere, pasatzen utzi.**

Amaitzeko, kontuan izan behar dugu **umeak ere subjektu aktiboak** direla, ingurua etengabe eraldatzeko gaitasuna duten heinean. Horregatik, aitortza hori egitea garrantzitsua da haien ahalduntze prozesu indibidual eta kolektiboa ez oztopatzeko (13).

PARTAIDETZAREN ANALISIA EGITEKO LAGUNGARRIAK IZAN DAITEZKEEN GALDERAK:

- Umeen parte-hartze ekitatiboa bultzatzen dugu?
- Taldeen barruan lanak banatzen ditugunean berdintasun irizpideak daude? Genero-rol eta -estereotipoak erreproduzitzen dira?
- Erantzukizunak talde barruan eztabaidatzen dira?
- Taldeak eratzen ditugunean, sexu/genero edo beste mota bateko segregazioa saihesten dugu?
- Taldeko lidergoa beti mutilena izan ez dadila lortzen dugu?
- Berdintasunezko elkarreragina sustatzen dugu?
- Bazterketa- edo diskriminazio-egoerak saihesten ditugu?
- Iritzi-desberdintasunak kudeatzen ditugu enpatia, asertibitatea eta entzute aktiboa bezalako gaitasun komunikatiboen bitartez?





UDALEKU HEZKIDETZAILEAK- OINARRIZKO 10 GAKO


1. Elkarren arteko **zaintza, laguntasuna eta elkertasuna** izango dira udalekuen balio nagusiak. Haiek zeharkatuko dituzte gure jarrera eta jokabide guztiak.
2. Udalekuetan **tratu onak** sustatuko ditugu uneoro. Errespetuz tratatu behar dugu elkar. Berdin dio kolpeak, ferekak edo musuak izan; hurkoaren nahiaren kontra, ez da ezer onartuko.
3. Udalekuetan **inork ez dio inori MINIK egingo**, eta gure burua babestuko dugu minik egin ez diezaguten. **Begiraleok gatazkak saihesten** saiaturiko gara eta sortzen direnak kudeatzen. Edonola ere, erasoren bat gertatuz gero, mina jaso duena artatuko dugu lehenengo.
4. Begirale- eta koordinatzaile-taldea **segurtasun- eta zaintza-gunea** izango gara umeentzat. Umeen emozioei tokia emango diegu eta haien sentimenduak balioetsiko ditugu beti.
5. Ume guztiak desberdinak dira, eta **askatasunean eta berdintasunean** hezi behar ditugu; genero kargarik gabe.
6. **Aniztasun afektibo-sexuala eta sexu- eta genero-aniztasuna nahiz gorputz-aniztasuna** errespetatu eta balioetsiko ditugu. Ume bakoitzak bere gorputza ezagutzea eta errespeta dezan sustatzen lagundu behar dugu. Berdintasunezko harreman aske eta arduratsuak sustatu behar ditugu eta harremanak modu libre batean garatzen utzi behar diegu.
7. **Familia-aniztasuna** errespetatu eta balioan jarriko dugu. Familiek askotariko errealitate eta egoerak bizi dituzte, eta guztiak kontuan hartu eta balioan jarri behar ditugu. Horrez gain, **aiten eta erreferente maskulinoen inplikazioa eta erantzunkidetasuna** bultzatuko dugu.
8. Gure komunikazio-ekintza guztiak **ez-sexistak eta inklusiboak** izango dira. Indarkeriarik gabeko komunikazioa eta genero-rol eta -estereotipoetatik urrunduko dena sustatuko dugu.
9. Jardueren **espazioa, denbora eta ekintza** elkarri loturik planifikatu eta gauzatuko ditugu; **bizikidetzaren berdintza eta bidezkoagoa** bultzatzeko.
10. Begiraleok eta koordinatzaileok **arreta berezia eskainiko diegu jolas libreari**, bereziki **patioan eta jantokian** ematen denari.


BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK


Erreferentziak


-  “Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea 2023-2030”.
Hezkuntza-Plana. Vitoria-Gasteizko Udala **(4), (5)**


-  Vitoria-Gasteizko Udal Haur Eskolen Sarearen
Hezkidetza Plan Gidaria (2023-2030) **(6), (9), (10),
(11), (12)**


-  EKIN! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Plana.
2023-2030. Vitoria-Gasteizko Udala **(3)**


-  Instrukzioa: Generoa eta euskararen erabilera egokia.
Irudi inklusiboak. Genero ikuspuntua estatistika eta
ikerketetan Vitoria-Gasteizko Udalean. 2020 **(2), (8)**


-  Generoa aisialdian. Monitoreentzako gida praktikoa.
Indarkeria sexista prebentzioa aisialdiko jardueretan.
Arabako Foru Aldundia. 2014

-  EAE-ko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza-Plana,
Berdintasunaren eta tratu onaren bidean. 2019-2023.
Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila **(7)**

-  Plan de Coeducación para los centros educativos de
Navarra. 2017-2021. Nafarroako Gobernua,
Hezkuntza Saila

-  Hezkidetza: hezkidetza eta hezkuntza ez-formala.
Nola landu hezkidetza aisialdian? Eburne Epelde.
Hik Hasi, 2009

-  Nola sustatu haurren parte-partzea ikuspegi
feministatik? Bizkaiko Urtxintxa Eskola. 2019 **(13)**

-  Haziak Astialdira- Hezkidetzak Astialdian hartzen duen
tokiaz hausnartzen. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
2020